

TREBAKUNTZA 2018-06: **ERE** PARTIKULA

Udal idazki askotan, *ERE* partikula ez da zuzen erabiltzen. Egunerokoan ere txarto erabiltzen da askotan, lekuz kanpo; batez ere, ahozkoan. Hona hemen zuzendu beharreko akatsak:

OHARRA: Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

AZALPEN OROKORRA

ERE partikulak bi ezaugarri nagusi ditu:

- a) Perpausaren osagai bati egiten dio erreferentzia
- b) Osagai horren atzean eta ondo-ondoan kokatzen da beti

OHIKO AKATSAK

1. * (*Ahozkoan*) *Koldo gurekin etorriko da. **ERE** Ane etorriko da.*
2. * (*Elkarrizketa batean*) *Ni etxera noa. Itxaron, ni **ERE** noa.*
3. * *Idatziz **ez ezik**, ahoz adierazi genion abokatuari kontratua eten diogula.*
4. * (*Elkarrizketa batean*) *Antton lanera joan da. Txomin **ERE**.*
5. * (*Ahozkoan*) *Iratxek ikastaroa egin du. **BAITA ERE** Mirenek.*
6. * (*Ahozkoan*) ***BAITA ERE** esan beharra dago XXX alderdiak mozioa garaiz kanpo aurkeztu duela, eta...*
7. * (*Ahozkoan*) *Ez da inor etorri **ERE**.*
8. * *Pentsatu ez ezik, **ERE IDATZI EGIN** dut.*

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Azalpen orokorrean adierazi dugunez, ERE partikula beste elementu baten atzean kokatu behar da. Hartara, **ez da zuzena esaldi hasieran jartzea.**

Ad. (Ahozkoan) Koldo gurekin etorriko da. **Ane ere** etorriko da.

2. **ERE aditz trinko baten aurrean badoa** (ad. dator, daukat, doa, dabil...) **aditzak BA- hartzen du.**

Ad. (Elkarrizketa batean) Ni etxera noa. Itxaron, **neu ere BA**noa.

3. **Aurretik EZ EZIK** partikula erabili badugu, derrigorrezkoa da esaldiaren **bigarren zatian ERE** partikula erabiltzea.

Ad. **Idatziz ez ezik, ahoz ERE** adierazi genion abokatuari kontratua eten diogula.

4. BAI partikulak aditza ordezkutzen du; beraz, **ez da zuzena aditza eta BAI batera erabiltzea.**

Ad. (Elkarrizketa batean) Antton lanera joan da. Txomin **ERE BAI**. (edo Txomin **ERE joan da**).

5. eta 6. **Ez da zuzena** ERE partikula eta ERE partikularen aldaerak **esaldi hasieran jartzea: BAITA ERE, EZTA ERE, ERE BAI, ERE EZ...**

Ad. (Ahozkoan) Iratxek ikastaroa egin du. Mirenek **ERE BAI** (edo **BAITA Mirenek ERE**).

Ad. (Ahozkoan) **HORREZ GAIN**, esan beharra dago XXX alderdiak mozioa garaiz kanpo aurkeztu duela, eta...

Bigarren esaldian ERE partikula erabili nahi izanez gero, **aukera hau** dugu:

Ad. XXX alderdiak mozioa garaiz kanpo aurkeztu duela **ERE** esan beharra dago, eta...

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

7. ERE partikula **indartu nahi duen elementuaren ondoan** kokatu behar da.

Ad. (Ahozkoan) Ez da **inor ERE** etorri (Inor indartu nahi da, ez etorri).

8. Erreferentziazko osagaia aditza bada, **EGIN erabili edo aditza errepikatu** behar da. Hona hemen adibidea:

Ad. Pentsatu ez ezik, **IDATZI ERE EGIN** dut (edo **IDATZI ERE IDATZI DUT**).

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99